

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BERANTEVILLAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den ekainaren 27an Berantevillako Udalaren eta Promoción Industrial de Berantevilla SA bere sozietate publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldikoa.

2017ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren, Udalaren diruzaintza geldikina eta Sozietatearen ondare garbia, hurrenez hurren, 39 eta 391 mila euroan murriztuko lituzketenak. Ezin izan da, gainera, Udalaren balantzeko ibilgetu materialaren saldoen gaineko ondoriorik ebatzi.

HKEEk fiskalizatutako Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udalak egungo gastu-mailari eutsiz gero, behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Honezaz guztiaz gain, Udalaren Kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenari jarraikiz, 2017an bete dira gastuaren araua eta aurrekontuaren zorpetze helburuak. Aurrekontuaren egonkortasunaren helburuan, berriz, eragiketa ez finantzarioek defizita sortu dute, 8.914 eurorena.

Udalak eta bere sozietate publikoak zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia.